DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
UDALINFO

Herritarrentzako Arreta
Atención Ciudadana

Easo, 41 | Tel. 010 - 943481000 | udalinfo@donostia.eus | www.donostia.eus
20006 Donostia / San Sebastián

## Zibilez ezkondu nahi dut Udaletxean



## Quiero casarme por lo civil en el Ayuntamiento

**Bi ezkontza mota daude:**

**Arrunta:**

Ospakizuna ekitaldi publiko batekin amaitzen da.
Ezkontza Udaletxeko Udalbatza Aretoan ospatzen da.

**Azkarra:**

Ez da ekitaldi publikorik egiten. Ekitaldi bakarra egiten da eta ezkongaiak eta lekukoak bakarrik daude. 15 pertsona egon daitezke gehienez.

Erabakitzen den aretoan ospatuko da ezkontza.

**Hay dos tipos de celebración de boda:**

**Ordinario:**

Finaliza con un acto público de celebración.
La boda se celebra en el Salón de Plenos del Ayuntamiento.

**Rápido:**

No se celebra acto público. Solo se celebra un acto con las personas contrayentes, las y los testigos. Máximo pueden estar presentes 15 personas.
La boda se celebra en una sala que se asigna para ello.

## Noiz ospatzen dira ezkontzak?



## ¿Cuándo se celebran las bodas?

| Noiz ospatzen dira ezkontzak? | ¿Cuándo se celebran las bodas? |
|---|---|
| Hileko bigarren eta hirugarren larunbatetan, jaiegunak ez badira.<br><br>Ordutegia: 10:00tik-13:30ra.<br>Ezkontza bat ordu erdiro. | Segundos y terceros sábados del mes, excepto si es día festivo.<br><br>Horario: 10:00 a 13:30.<br>Una boda cada media hora. |
| Ekain, uztail eta irailean hileko bigarren eta hirugarren larunbat eta ostiraletan izango dira ezkontzak, jaiegunak ez badira.<br><br>Ordutegia: 18:00tik 20:00ra.<br>Ezkontza bat ordu erdiro. | Los meses de junio, julio y septiembre se celebran los segundos y terceros viernes y sábados del mes. Excepto si es día festivo.<br><br>Horario: 18:00 a 20:00.<br>Una boda cada media hora. |
| Ezkontza akto publikorik gabe ospatzen bada, hileko bigarren eta hirugarren ostegunetan izango dira ezkontzak, jaiegunak ez badira.<br><br>Ordutegia: 11:30tik 13:00ra<br>Ezkontza bat ordu erdiro. | Si la ceremonia se celebra sin acto público,<br>se celebran los segundos y terceros jueves del mes, excepto si es día festivo.<br><br>Horario: 11:30 a 13:00.<br>Una boda cada media hora. |

12878n III

## Zer egin behar dut?



## ¿Qué tengo que hacer?

| Zer egin behar dut? | ¿Qué tengo que hacer? |
|---|---|
| **1. Eguna eta ordua eskatu:** | **1. Reservar fecha y hora:** |
| Udaletxean, Udalinfo bulegoetan edo telefonoz.<br>Udaleko Herritarren Arretarako Zerbitzuak baietsi beharko du. | En el Ayuntamiento en la oficina Udalinfo o por teléfono.<br>En Udalinfo le confirmarán la reserva. |
| **Egun eta orduaren erreserba aldatzeko:**<br>idatziz eskatu behar da, eta Udal!nforen bulegoetan edo erregistro telematiko bidez aurkeztu. | **Cambiar o cancelar la reserva de fecha y hora:**<br>hay que solicitarlo por escrito y presentarlo en las oficinas de Udal!nfo o por registro telemático. |
| **2. Ezkontza eskabide bat bete eta Udal** | **2. Rellenar una solicitud de boda y presentarla en** |

| erregistroan aurkeztu: | el Registro del Ayuntamiento: |
|---|---|
| Ezkontza egin baino 6 hilabete lehenago aurkeztu behar da. Ezkontzeko orduaren erreserba egiten den egunaren eta ezkontza egunaren arteko epea 6 hilabete baino gutxiago baldin bada, astebete dago eskaera entregatzeko. Bestela, erreserba baliogabetuko da. | Hay que presentarla 6 meses antes de la celebración de la boda. Si el plazo entre la fecha en la que se reserva la hora y la celebración de la boda es menor de 6 meses: tendrá de plazo 1 semana para presentar la solicitud. En caso contrario, se anulará la reserva. |
| **Aurkeztu behar den dokumentazioa:**<br>• Ezkongaien eta bi lekukoen NANak.<br>• Langabezian egonez gero, egoera hori egiaztatzen duten agiriak ezkontzeko ordaindu behar den prezioa murriztea edo ordaindu beharrik ez izatea eskatzeko. | **La documentación que debe presentar:**<br>• DNI de las personas contrayentes y de los y las testigos.<br>• Si está en desempleo: acreditar esta situación para solicitar la reducción o exención del pago que corresponda por la celebración de la boda. |
| **3. Ezkongaietako batek jo beharko du erroldatuta dagoen udalerriko Erregistro zibilera:** | **3. Ir al Registro Civil del municipio de una de las personas contrayentes, donde esté empadronada:** |
| Donostian erroldatuta izanez gero, Atotxako Justizia Jauregira: Kalkutako Teresa, 1. Telefonoa: 943 000 730.<br>Beste udalerri batean erroldatua izanez gero, udalerri hartako Erregistro Zibilera. | Si se trata de una persona empadronada en San Sebastián, el Registro Civil está en: Palacio de Justicia de Atotxa en la calle Teresa de Calcuta, 1. Teléfono: 943 000 730.<br>Si está empadronada en otro municipio, deberá ir al Registro Civil de su municipio. |
| Erregistro Zibilak ezkontzarekiko adostasuna adierazi beharko du ezkontza gauzatu aurretik. | El Registro civil enviará la autorización al Ayuntamiento antes de la celebración del matrimonio. |

**Zenbat ordaindu behar dut?**



**¿Cuánto tengo que pagar?**

| | |
|---|---|
| Eguna eta ordua eskatu duen pertsonari jakinaraziko zaio prezioa. | El precio se notificará a la persona que ha hecho la reserva de la fecha y hora. |
| Ordaindu behar dena, ezkontza egiteko izaten diren zerbitzu osagarriena izaten da, eta, betiere, ezkontza ekitaldi publikoarekin eta ostiralean edo larunbatean egiten bada ordaindu behar izaten da. | El precio a pagar es por los servicios complementarios a la celebración de la boda, siempre que se celebre con acto público en viernes o sábado. |
| Ezkontza ekitaldi publikorik gabe egiten bada, erreserba doan izaten da. | Si la celebración es sin acto público: la reserva es gratuita. |
| **Ezkontzeko ordaindu behar dena:**<br>• Udalbatzaren Osoko Bilkuren Aretoa | **El precio a pagar por la celebración de la boda:** |

| | |
|---|---|
| gordetzen bada, ezkontza arrunta ekitaldi publiko eta guzti ospatzeko: 100€.<br>• Ezkontza egitea eskatzekoan ezkontideetakoren bat lanik gabe badago: 60€ .<br>• Ezkontza egitea eskatzekoan bi ezkontideak lanik gabe badaude: 0€ | • Si se reserva el Salón de Plenos para la celebración de la boda ordinaria con acto público: 100€.<br>• Si al realizar la solicitud de boda una de las personas contrayentes está en desempleo: 60€<br>• Si al realizar la solicitud las dos personas contrayentes están en desempleo: 0€ |
| **Ezkontza bertan behera utziz gero:**<br>• Jarritako eguna baino 3 hilabete lehenago jakinaraziz gero, jarritako diruaren %50 itzuliko da.<br>• Ezkontideren bat edo haien familietako lehen edo bigarren graduko senideren bat hil edo larri gaixo jarriz gero, sartutako diru guztia itzuliko da. | **En caso de anular la celebración de la boda:**<br>• Si se comunica con 3 meses antes de la fecha fijada, se le devolverá el 50% del dinero ingresado.<br>• Si es por fallecimiento o enfermedad grave de alguno o alguna de las personas contrayentes, o de cualquiera de los familiares de primer o segundo grado, se devolverá todo el dinero ingresado. |

## Ezkontza egunaren gaineko informazioa / Información sobre el día de la boda

| | |
|---|---|
| Erreserba egitekoan emandako ordua da ezkontzaren ordua.<br>**Derrigorrezkoa da puntuala izatea**. Ezkontzak 30 minuturo ospatzen dira, eta bat atzeratuz gero, hurrengoa atzerarazten du. | Cuando hizo la reserva, le asignaron una hora, esa es la hora de comienzo de la boda.<br>**Es importante ser puntual** ya que las bodas se celebran cada 30 minutos y los retrasos afectan a las siguientes bodas. |
| Interesatuek **aukera dezakete** ezkontza **zein hizkuntzatan** egin: euskaraz, gaztelaniaz edo bietan. | Se puede **elegir en qué idioma** celebrar la boda: euskara, castellano o bilingüe. |
| **Galarazita** dago arroza, konfetia, lore hostoak, xaboi burbuilak edo antzekoak botatzea, nola Alderdi Ederreko Udaletxeko terrazan, sarrerako hesitik aurrera, hala aurrealdeko sarrerako Ijentea kaleko sarrerako arkupean ere. | Está **prohibido** echar arroz, confetis, pétalos de flores, pompas o similares en la terraza del Ayuntamiento de Alderdi Eder a partir de la verja de acceso y en el soportal de acceso de la calle Ijentea. |
| **Ezkontza ekitaldi publiko batekin - Arrunta** | **Boda con acto público – Ordinaria** |
| • Sarrera Alderdi Ederretik izaten da.<br>• Arkitektura oztoporik gabeko sarrera bat behar izanez gero, Ijentea, 1 kaletik izango da. | • La entrada es por Alderdi Eder.<br>• Si se necesita una entrada accesible sin barreras arquitectónicas, la entrada será por la calle Ijentea, 1. |
| • Zeremonia bakoitzean auto bakar batentzako baimena ematen da. Alderdi Ederreko lorategietan aparkatua egon daiteke, udaletxearen ondoan, baina ospakizunak irauten duen bitartean bakarrik. | • Sólo se autoriza un coche por boda que podrá permanecer aparcado en los jardines de Alderdi Eder, en la zona próxima al Ayuntamiento, solo durante la celebración. |

| | |
|---|---|
| **Ohar garrantzitsua**:<br>Hiriko **Isuri Gutxiko Eremura** ibilgailuak sartzeko murrizketa berriak direla eta, sartzeko baimena eskatu beharko da ingurumen-etiketarik ez duten ibilgailuentzat.<br><br>Udalaren web orriko "Isuri Gutxiko Eremurako sarbidea" izapidean, noiz eta nola eskatu behar den jakiteko informazioa lortuko duzu. | **Nota importante**:<br>Debido a las nuevas restricciones de entrada de vehículos en la **Zona de Bajas Emisiones** de la ciudad, se deberá solicitar autorización de acceso para los coches sin etiqueta medioambiental.<br>En el trámite "Acceso a Zona de Bajas Emisiones" de la página web del ayuntamiento obtendrá la información sobre cuándo y cómo solicitarlo. |
| • Lore apainketa Udalaren kontu izango da. | • El ayuntamiento se encargará de la decoración floral. |
| • Musika ere Udalaren kontu izango da, musikarien bidez zuzenean ematekoa ez bada. Hala baldin bada, Udaleko arduradunak zeremonia hasi baino aurretik emango ditu eman beharreko jarraibideak Udaleko arduradunak. | • El Ayuntamiento se encargará de la música, salvo que sea en directo. En este caso, la persona responsable del Ayuntamiento dará las instrucciones necesarias al comienzo de la ceremonia. |
| • Dantzari batzuk dantza egiteko badira, Udaletxeko terrazan egin behar dute, zeremonia bukatu eta gero. | • Si hay dantzaris bailarán en la terraza del Ayuntamiento una vez finalizada la ceremonia. |
| • Ezkontideak eta lekuko edo aita-ama pontekoak, Udalbatza aretoan eseriko dira, haientzat gordetako 4 besaulkietan. | • Las personas contrayentes, junto con los y las testigos o padrinos y madrinas de boda, se colocarán en las 4 butacas reservadas para ellos en el salón del Pleno. |
| • Argazkiak zeremonia egin bitartean bakarrik atera daitezke. Zeremonia bukatutakoan ezin da beste argazkirik atera, ez aretoan, ezta sarrerako eskaileran ere. | • Se pueden sacar fotos durante la celebración de la boda. Una vez finalizada la boda, no podrán hacerse fotos ni en el salón ni en la escalera de acceso. |
| **Ezkontza ekitaldi publikorik gabekoa - Azkarra** | **Boda sin acto público – Rápida** |
| • Sarrera Ijentea kaleko 1etik da.<br><br>• Ezkontza, hartarako izendatzen den areto batean izaten da, eta ezkongaiak eta lekukoak besterik ez dira izaten. 15 pertsona, gehienez ere. | • La entrada es por la calle Ijentea, 1.<br><br>• La boda se celebrará en la sala que se asigne. Solo estarán presentes las personas contrayentes y las y los testigos. Serán máximo 15 personas. |



| Ziurtagiria ematea | Entrega de justificante |
|---|---|
| Ezkontza bukatutakoan, ezkonberriek ezkontzaren **aktaren ale bat** jasoko dute, ezkontzaren agiritzat.<br><br>Udalak beste ale bat bidaliko dio Erregistro Zibilari, horrek ezkontza-ziurtagiria egin dezan. | Al finalizar la celebración de la boda se entregará a las personas contrayentes, un **ejemplar del acta** como justificante de la celebración.<br><br>Otro ejemplar se remitirá desde el Ayuntamiento al Registro Civil, a fin de que éste expida el correspondiente certificado de matrimonio. |